



YÉSE-ko zintzurrean beherantz

SANTI URRUTIA

GOIZALDEKO bostak dira lo-sakutik irteko ahaleginak egiten ditugunean. Oraindik ez da kanpoaldean egunsentiaren argi-izpirik somatzen, eta Etsaut-eko «gîte d'étape» aterpea utziz mendian gorantz abiatzen gara. Herriko plazan bertatik igarotzen den errekaaren soinu musikaria entzuten dugunean pentsatzen hasten gara, geuk ere, hainbat ordu geroago, han amaituko dugula zintzurrean jaitsiera, ia urarekin bat eginda ordurako. Hori, gauza guztiak ondo badoaz. Hain desnibel handia duen haitzarte batetan, eta hainbeste rappel egin beharra dagoen lekuan, arazo asko egon daitekeelako.




HAL ERE, eta goizaldea lainotsua den arren, gogotsu igotzen hasten gara pista batetatik gorantz, erreka esku-man utzita. Berehala, pistaren kurba batean, eskuinetarantz abiatzen den bidezidorretik jarraitu behar da, mendian goraino doan bideskaren hasiera dena. Lehen zati honetan, arboladi eta landak zeharkatuz, baserri-etxeen inguruetatik igarotzen gara, egunsentiaren lehenengo argi-izpiak hel-tzen zaizkigunerako.

Bidezidorretik gorantz aldapa ez da edo-zelakoa. Erritmo lasaia hartuz pausu bakoitza neurtzen igotzen gara. Espeleoko saketan ez daramagu pisu gehiegi, badakigulako gora igotzen dugun guztia gero zintzurretik behera jaitsi beharko dugula. Igotzen ordu bi inguru pasatu ondoren erreka eta bere afluente bat biltzen direneko tokira iristen gara. Orain, azken honen gainalderantz zuzentzen gara, zintzuraren jaitsiera afluentean hasten delako. Zuhaitzak atzean utzi ditugu, egunak iadanik argitu du, eta goi larretako saltamatxinak gure oinen artetik ihes egiten saiatzen dira.

Laino artean Yése-ko txabola ikusten da, eta ardiak artegian daude, ez ditu oraindik artzainak larrera bidali. Hiru txakur zuri abegitsu ateratzen zaizkigu egunonak ematera. Artzainak zertara igo garen dakienean ezin du harridura keinua egin gabe egon, «gazteok ia ez dakite zer egin, nahiko dute bada etorri diren bidetik jaitsita ere», pentsatuko bailuen.

Txabola ondotik ezkerretarantz hartzen dugu, erreka-adarraren bururaino heltzeko asmoz. Bidean arabiak batzeko astia ere badaukagu, gosaltzeko ordua ere iritsi delako, hiru ordu igotzen igaro ondoren. Azkenean heldu gara zirku batetara, 1.800 metrotako goian, eta lainoak tontor guztiak estaltzen ditu.



Ur hotzetan

Gauzak prestatu ondoren, neoprenoak eta buzoak jantzita, prest gaude erreka ur hotzetan sartzeko. Berehala hasi behar da soka

ipintzen rapelatzeko, eta zintzurak bere itxura tipikoa hartzen du hasera bertatik. Iada laugarren jauziak zintzur mota honen ideia egiteko balio digu, 40 metrotako rappel-arekin aurkitzen bait gara. Aurrera

jarraituz, batzutan sokaz, ta bestetan esku ta anka hutsez jaitsiaz, beherantz goaz.

Ia anklaje guztiak aldatu beharra daukagu: gehienetan zinta edo soka-zati berria jartzen dugu, urak hondatu egin dituelako

ipinita egon direnak. Beherantz eta behe-
rantz era guztietako ur-jauziak aurkitzen di-
tugu, eta putzu sakon bat baino gehiago ere
azaltzen da, igerian askorik ez bada egin be-
har ere. 17 rappel burutu ondoren heltzen
gara erreka nagusiarekin eotunera, eta ia ba-
dirudi bizitza osoa daramagula uretan irris-
tatzen eta rappelak jaisten. Halere egin du-
gunaren doblea geratzen zaigu, ur eta arazo
gehiagorekin.

Bigarren zatia

Larreak goian utzi ditugu eta zintzurreko
hegalak zuhaitzez eta landaredi berdez bete-
ta daude. Baina erreken jauziek eta pu-
tzuek ere zuhaitz-hilerriak dirudite hainbat
lekutan. Harri labainkorren gainetik zehar
ibiltzea ez bada batere atsegina gertatzen,
norbera edozein unetan eror daitekeelako,
zuhaitz ihartuen enbor eta adarren artetik
jaistea ez da erosoagoa. Putzuak ez daude
bakarrik harriz beteta, enborrek beren mutur
eta adar zorrotzak erakusten dituzte ur ar-
tean gorantz begira. Nola edo hala lortzen
dugu enborkaosak eskibatuz aurrera egitea.

Edozein ur-putzuren ondoan zeozer jaten
dugu, indarrak bildu behar direlako behe-
rantz ekiteko. Anklajeak ahal den lekuetan
egiten ditugu, jauzi-buruetako enbor naha-
sietan, edo zuhaitz baten sustraian. Iadanik
ez dakigu nola goazen aurrera, oinez ala na-
rraz, harri launetan laban eginez. Gutariko
batek baino gehiagok kolpe onak harrapatu
ditu, eta denok ditugu gorputzak haitzen
kontra ukitu onak emanda.

Oraindik badugu umorea «tobogana» dei-

Argazkiak: Aitor Zabalgogezkoa.



turiko ur jauzia erdi jolasten jaisteko. Zintzu-
rra leku batzuetan orma tartean doa, eta
besteetan ez ditu alboak hain malkartsuak.
Etengabe rappelatzen aritu ondoren, eta 30
metrotako ur-jauzi baten azpira helduta, km.
ta erdiko leun-unea hasten da. Atzean, 39
rappel utzi ditugu.

Haitzetan labankada gehiegi egin gabe
aurrera goaz luzaroan, erreka zeharkatzen
duen pasarela batetara iritsi arte. Nahi iza-
nez gero, bide hau jarrai daiteke eskuma-
rantz herrira heltzeko.

Errekatik segituz 9 jauzi faltatzen dira, eta
ormarik garaianak hemen daude, ez dago

ihes egiteko aukerarik. Laster herrira iristeko
gogoak azkarrago mugierazten gaitu, baina
sorpresarik handiera azken jauzi bietan har-
tzen dugu: bada, hauek jaistea, urez beteta-

ko tubotik irratatzea bezala da gutxi gora-behera, eta arriskutsua izan daiteke ur asko badago.

Gutzira 1.200 metrotako desnibela eta 49 rappel jaitsi ondoren Etsaut herriko plazan irtetzen gara, han aurkitzen diren kurioso harridura eta bertaraino osorik heltzearen pozas.

RESUMEN Y FICHA TECNICA

Situación: Pueblo francés de Etsaut, a 20 km. de Candanchú.

Características: Garganta formada por el curso de dos ríos: el de Ourtasse (parte superior) y el de Sadun. Presenta una longitud aproximada de 4.500 m. y un desnivel de 1.200 m. con 49 rappeles. La garganta no contiene grandes estrechamientos ni fuertes paredes verticales, por lo que en el supuesto de crecidas existen numerosas posibilidades de escape, excepto en el tramo final (a partir de la pasarela). Aquí los dos últimos rappeles de 25 y 20 m. pueden resultar algo complicados y hasta peligrosos, por la fuerza del agua. Por otra parte no existen grandes pozas donde sea preciso nadar.

Aproximación y horarios: Desde el mismo pueblo de Etsaut hay que tomar el camino que conduce a la cabaña de Yése (Alta Ruta Pirenaica). Para ello seguiremos en un principio la pista, para dejarla al cabo de unos 200 m. y seguir el sendero que parte a la derecha de una curva cerrada. El sendero es fácil de seguir, conduciéndonos en continua subida hasta un punto donde se cruza el río (en la confluencia del Ourtasse con el Sadun), al mismo tiempo que dejamos el bosque para seguir por terreno despejado. De aquí a la cabaña de Yése tenemos unos 15 minutos de fuerte subida. Una vez en la cabaña bastará con ladear el monte hacia la izquierda, presentándonos en escasos 20 minutos en un circo, donde comienza el descenso. El tiempo total de ascensión se puede cifrar en 3 ó 4 horas. Y para el descenso de 8 a 12 horas.

Material necesario: El descenso se halla completamente equipado. Sin embargo, es imprescindible llevar material de instalación: spits, clavijas, etc. y lazos (muchos lazos) ya que el equipamiento se halla sometido a un gran desgaste. Cuerdas: dos de 40 y una de 20 (muy práctica para rappeles cortos). Vestimenta: Neopreno (4 mm.) y un buzo por encima para no convertirlo en trizas.

Participantes: Grupo Espeleológico ADES.

